



Txistulariak, hamarretakoa egiten, Antion bertan.

rrak ere gure atzetik etortzen dira, errespetu osoz, saguak Hamelinen bezala.

Dena den, herritarrek Santa Isabel egunean soilik errespetatzen gaituzte, eta ez da harritzekoa, igande goizetan guk esnatzen baititugu. Igandero kalejira ohitura zaharra da, eta tabernen ordutegia aldatu denez, kalejirarena ere aldatzea komeniko litzateke. Hurrengo bileran, zuzendaritzari ordutegi aldaketa proposatuko diogu.

Plazatik Antiora bidean irte ten gara. Parrokia parean, apai za eta akolitoak elkartzen zaiz kigu. Eitzan agintariak eta apaizak ardo goxoa edan ohi dute, baina guk, pena handiz, eskaintzari uko egiten diogu. Eitzako kaleak belarrez estalirik egoten dira, eta balkoietan izara zuriak zintzilikatzen dituz te; benetan polita egoten da Zumarragako auzune zaharre na! Eitzatik gora Antiora hel tzen garenean, hamarretako bikaina egiten dugu.

Kanpai hotsak entzutean, gure bihotzak kanpaien errit moa jarraitzeari ekiten dio, eta ermitarako bidea hartzen dugu. Antioko baseliza gure begien aurrean ikusteak sortzen digun zirrarazumarragarrek soilik uler dezakete.

Baselizako eskaileratan, dant zariak arkua egiten dute eta az pitik agintariak eta gu geu pasa tzen gara. Baseliza barruko isil tasuna benetan hunkigarria iza ten da. Dantzariak izaten dira sartzen azkenak, eta dantzan hasi aurreko momentua oso be rezia izaten da beraientzat, urte osoko lana eta ilusioa jokoan baitute.

Gure erantzukizuna handia da, primeran jo beharra baitugu dantzariak urduri jarri ez daite zen. Bestalde, gaizki joko bage nu, herriak ez liguke sekula bar katuko eta, segur aski, Urretxu ra erbesteratuko gintuzkete.

Tentsioa dela eta, lehenengo notak ez ditugu entzuten, baina

ANTIOKO AMA

Antioko Ama gure alde dugu, eta Antion sekula ez du txistulari batek gaizki jo

Antioko Ama gure alde dugu, eta Antion sekula ez du txistula ri batek gaizki jo. Lehen dantza kapitain nagusiak egiten du, on doren hiru kapitainak bakarka aritzen dira eta, azkenik, laurak elkarrekin. Honenbestez buka tzen da eliza barruan armekin egiten den Euskal Herriko dan tza bakarra, eta dantzariakin ba tera, elizatik irteten gara hamai ketakoa egitera.

Meza ostean, kanpoko dan tzak egiten dira, eta hauek amai tutakoan, txistulari jantzia ken du eta parrandazalearena jan tzen dugu, hau da, egunerokoa. Txistulariz jantzita gaudenean neskak gaintetik kendu ezinik ibiltzen garenez, herritarren mesederako erantzten ditugu arropak. Izan ere, ligatzeko as moz igotzen dira Antiora giza gaixoak, eta ez dugu euren ilu sioa zapuztu nahi.

Bazkaria eta pattarra

Hiruzpalau trago hartu ondo ren, bazkaltzera joaten gara. Bazkariko elkarrizketak oso ari nak izaten dira, bezperan eta bazkaldu aurretik edandakoen eraginez. Gurekin batera idazle batek eta abeslari batek (Pako Aristik eta Mikel Markezek) bazkaltzen dute, eta ustez inte lektualak diren arren, ez dituzte gure solasaldiak euren ustezko jakituriar aberasten. Bazkaldu ondoren, Arkaitzetara joaten gara, Maite Mordo-ren kafearen bila bere seme txistulariarekin. Bertan pattarra eskaintzen di gute, eta ondo irakatsitako giza semeak garenez, ez diogu es

kaintzari uko egiten. 50 pertso naren kafea mahaira eramatea, erantzukizun handia izateaz gain, lan zaila ere bada, Mikel Mordo-k urtero mahaira itzul tzeko bide berriak eta zeharka ezinak topatzen baititu.

Kafea hartu ondoren, mahaiz mahai joaten gara euskal musi ka herrikoien erreperorio za bala kantatzera. Bide batez, he rrikideen pattar botiletako az ken tantak edaten ditugu, zaka rrontzietara errazago eraman ditzaten. Bazkalosteko gatza eta piperra garela esan beharra dago, eta benetan maitatuak sentitzen gara. Izan ere, ume batentzat Olentzero bezain ga rrantzitsuak gara gu, txistula riak, Antioko mahaietako lagu nentzat.

Arratsaldeko zazpitan, berriz txistulariz jantzi eta serio jartzen gara, elizari bueltan biribilketak eta arin-arinak jotzeko. Mr Hyde izatetik Dr Jekyll izatera bat-batean pasa tzen garenez, baseliza alboko txosnan egoten diren herrita rrak ez dira eraldaketaz jabe tzen, eta oraindik Mr Hyde izango bagina bezala tratatzen gaituzte: bultza egiten digute, belarrira oihu...

Baselizatik autobusak geldit zen direneko plazara goazela, paseoa jotzen dugu, eta han jai tsiera hasten da. Aurrealdean goazenez, gu gara jaitsieraren erritmoa ezartzearen ardura dunak, baina ez dago artalde hori fundamentuz eramango duen artzainik! Azkenerako, herritarrek ezartzen duten erritmora jaisten gara (oraingo an ere herriaren esanetara!), eta Eitzan atsedenaldir txiki bat hartzen dugu depositua bete tzeko. Plazara iristean, azkene koz jotzen dugu, eta ondoren, Iburretara joaten gara, bertan sekulako giroa egoten baita.

Txistularion Santa Isabel eguna hor amaitzen den arren, parrandazalearenak jarraitu egiten du.



JOXE MARI IPARRAGIRRE
BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA
Sta. Barbara bidea, z/g - Tel./Faxa: 943 72 14 03 / 943 72 14 13
20700 - URRETXU (Gipuzkoa)

2000-2.001 IKASTURTERAKO ESKAINTZA

UNIBERTSITATE ETA LAN MUNDURA BIDERATUTAKO ESKAINTZA ZABALA

- ✓ HSAOL BATXILERGOAK 1 ETA 2
 - ◆ Unibertsitateko lan aukerak: Zientifiko-teknikoa, Osasun Z. Humanitateak, Gizarte Z.
 - ◆ A eta D ereduak
 - ◆ Aukerazkotasun zabala
 - ◆ Orientazio-Tutoritza departamendua
 - ◆ Eskolaz-kanpoko ekintzen plana
- ✓ ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA. "Erizaintzako Zaintza Osagarriak". 1.400 ordutako zikloa (ikasturte bat eta erdi) eta praktikak ospitale eta eritexetan.

MATRIKULA EPEA:
BATXILERGOA ETA HEZIKETA ZIKLOA:
Uztailaren 2tik 6ra (biak barne)



deportes

APALATEGUI

kirolak

Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu

S. Esnaola, 5 - Tel.: 943 72 42 07 - ZUMARRAGA

TEKNOLOGIARIK BERRIENA ZURE ESKU

HEG ALDE AUTO

- KONPONKETAK OROKORREAN.
- IBILGAILUEN SALMENTA.
- GARBIKETA-ZUBIA.

ZERBITZU OFIZIALA

PEUGEOT

Mugitegi, 17 Pol. ** ☎ 943 72 51 37 ** URRETXU

ZUMARRAGAKO
AMA-LUR
ELKARTEA

SANTA IXABELAK
ONDO PASA!!!

Iturgintza eta Berokuntza



BELOKI

Beloki Instalazioak. s.l.

CIF: B-20491999

Okendo, 2 - behea • 20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 72 29 04 • Faxe: 943 72 65 13